



Prentsa oharra

Museum Cemento Rezolak “Inguruko industriak (1850-1950). Ondarea eta memoria” erakusketa inauguratu du

Aldi baterako erakusketak Cementos Rezolaren inguruan zeuden Donostiako industriak ekartzen ditu gogora

Ibilbidea eskaintzen du hainbat erakundek kontserbatutako objektuetatik, hiriko industria-ondareari balioa emanez

Donostian, 2022ko maiatzaren 24an. Cementos Rezola-HeidelbergCement Group-en esku dagoen Museum Cemento Rezolak aldi baterako “Inguruko industriak (1850-1950). Ondarea eta memoria” erakusketa inauguratu du gaur. Erakusketa horrek 1850. eta 1950. urteen artean Donostian, Cementos Rezolaren inguruan, aritu ziren industriak gogorarazten ditu. Hainbat erakundek kontserbatutako objektuetan zehar egindako ibilbidea da, eta hiriko industria-ondareari balioa ematea ahalbidetzen dute. Beren objektuak laga dituzten erakundeen artean, Gordailua (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa), San Telmo Museoa, Lenbur Fundazioa, Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren Argazki Artxiboa (Eusko Jurlarritza) eta Altzako Tokiko Bilduma daude.

La Providencia, Cervezas El León, Louit, Chocolates Suchard, Columbia, Calber, Tabacalera edo Cementos Rezola industriak, besteak beste, erakusketaren parte dira, beren objektuen bitartez. Industria horiei esker, hiria, kresal usainaz gain, txokolate, xaboi eta lurrin usaina hartzen, zapore berriak izaten, hasi zen, hala nola garagardoa eta tabakoa, eta zarzuela, opera eta pop erritmoan mugitzen hasi zen.

Erakusketa horretan, alargunak izanik, negozioaz arduratu ziren eta industria-jarduerarekin jarraitu ahal izateko enpresari bihurtu ziren emakumeak ere nabarmentzen dira.

Inguruko 13 industria dira erakusketa horretako protagonistak. Nostalgia eta bizitza osoa enpresa-proiektu hauek aurrera ateratzeko bizia eman zuten pertsonen merezitako aintzatespena nahasten dira bertan:

- La Providencia: Bujien, estearikoen, glizerinen, xaboiaren eta abarren estatuko industriarik garrantzitsuenak, “Jabones Lagarto” izenez ezaguna.
- Cervezas El León: Kurtz familia, zerbeza tradizio luzeko familia.
- Pozzy: Ameriketarako garagardo botilatua.
- Louit: kakao onenaren gustua.
- Chocolates Suchard: txokolatearekiko pasioa.



- Brunet: sagardorako botilak.
- La Fe: harriak eraldatzen zituen industria.
- Columbia: geldirik egon ezin zen ekintzailea eta disko-fabrika.
- Calber: Errege Etxearen enpresa hornitzailea.
- Tito: emakume bat hirian lehenbiziko xaboiak egiten.
- Delaunet-Duñabeitia kontagailuak, uretarako bazkideak.
- Tabacalera: gehien bat emakumeek egindako tabakoa.
- Cementos Rezola.

Museum Cemento Rezola, ingurunearekiko konpromiso soziala

Museum-a oso toki berezian eta eraikin berezi batean dago, Cementos Rezola fabrikak 1948an langileen seme-alabentzat eraiki zuen eskola zaharrean. 1997an, eskola erabilerarik gabe geratu ondoren, lantegiak bere birmoldaketa enkargatu zion Estudio Peña Gancheguri, museo funtzio berrira egokitzeko. Erabilera berri bat, baina xede bera: inguruko jendearen artean ezagutza eta kultura zabaltzea.

Izan ere, lantegiak bere inguruarekin duela 170 urtetik duen konpromiso sozialaren ikur da eraikina. Añorgako lantegia hiriko industriaren adierazgarri bizi bakarra da, eta beti izan du harekin konpromisoa eta lotura zuzena bere historiarekin; izan ere, bertako labeetatik atera da azken mendeko Euskadiko lanik adierazgarrienei bizia eman dien zementua.

Museoak, gainera, hezkuntza-programa espezifiko bat du lehen hezkuntzako ikasleentzat, eta baita bigarren hezkuntzarako eta lanbide-hezkuntzarako jarduerak ere. Ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzuteko asmoz, bisita komentatuak eta tailer egokituak eskaintzen dira.

HeidelbergCement Hispaniari buruz

HeidelbergCement Hispania, mundu osoko idorren lehen ekoizlea, zementuen bigarrena eta hormigoiairen hirugarrena den **HeidelbergCement** multinazionalaren Espainiako filiala da. Espainian, **HeidelbergCement Hispaniak Hanson** markarekin egiten du lan, hormigoia eta idorrek ekoizteko eta merkaturatzeko, eta **FYM** markarekin, berriz, zementua fabrikatzeko eta merkaturatzeko. Euskadin, **FYM-HeidelbergCement**-en esku dagoen **Cementos Rezola** markarekin egiten du lan eta merkaturatzen ditu produktuak.

Cementos Rezola-HeidelbergCement

Prentsa Kabinetea

MBN Comunicación, S.L.

Josean Aguado

Telefono zenbakia: 94 435 63 30



Cementos Rezola
HEIDELBERGCEMENTGroup

Helbide elektronikoa: j.aguado@grupombn.com